

«Kristau-elizak, kristau-herriarenak»: ikerketa zail baten oinarriak

Iñazio Azcoaga Lasheras

Lekunberri, Gorriti eta Uitziko parrokoa. Zuzenbidean lizentziatua, Teologian batxilerra. Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea

Migel Larrambeber Zabala

Uharte Arakilgo parrokoa eta Aralarko San Migel Santutegiko kapilaua. Historian lizentziatua, Teologian batxilerra. Iruñeko Seminarioko irakaslea.

Eliza erakundea da eta lege zibilek aspaldidanik aitortu izan diote ondasunak edukitzeko eskubidea. Historian zehar Elizak donazio asko jaso izan ditu, beste erakundeetatik batzuetan eta bere eliztarren eskuetatik beti. Erdi Aroan gauzatu zen oinarritzko zerga-sistema bat: eliztarrek beren parrokiei hamarrenak —apaizen eta pobreen sostengurako— eta primiziak —parrokia- ren gastuetarako (obrak, kultua)— ematen zizkieten. Errealitate horien lekuko dira parrokietak artxiboetan ditugun «tazmia» eta «fabrika» izeneko liburua. Erakunde zibilek parte hartu izan dute parrokien ondasunen administrazioan, bi aginteak (zibila eta eklesiastikoa) elkarlanean aritzen baitziren (patronatua eta abar sortuz). XIX. mendeak aldaketa asko ekarri zituen: desamortizazioak; hamarrenak, primiziak eta patronatua bertan behera uztea... 1861. urtean sortutako Jabetza Erregistroan ez zegoen tenplu katolikoak inskribatzerik. 1867/1998 Errege Dekretuak salbuespen hori inkonstituzionaltzat eman du: musulmanek beren meskitak immatrikulatzeko eskubidea badute, zer dela-eta ez Eliza Katolikoak bere tenpluak?

GAKO-HITZAK: Parrokiaren ondasunak · Hamarrenak eta primiziak · Patronatua · Jabetza Erregistroa.

Catholic church, like institution, has right to have properties. The law recognizes it. In the history the Church has received a lot of donations, sometimes from others institutions and always from christian people. In the Middle Ages it was a special tax: catholic people gave to his parish church the “diezmos” (tithes) —for the priests and the poor people— and the “primicias” (first fruits) —for the expenses of the parishes— until XIXth century (see the parish books, specially “tazmia” and “fabrika” books). The civil institutions take care in the parish expenses because two authorities were working together (“patronato”...). In XIXth century changed this situation in Spain: civil authority forbade church taxes and made the “desamortizaciones” (disentitlement). The Land Registry was founded in 1861 in Spain, but it was not possible to register catholic churches in this registry until 1998 (the 1867/1998 Royal Decree give this permission to register catholic temples). Muslims can inscribe their mosques, why the Catholic church can not inscribe her temples?

KEY WORDS: Parish poperties · Tithes and first fruits · “Patronato” · Land registry.

Jasotze-data: 2009-10-28. *Onartze-data:* 2009-10-28.

Eliza instituzio gisa¹

Ezer aipatzen hasi aurretik, eskerrak eman nahi dizkiogu Udako Euskal Unibertsitateari kalean eta komunikabideetan zehaztasun handirik gabe jorratzen ari den gai konplexu hau arlo akademikora bideratu duelako ausardiaz. Historian gorderik geldituko da aurreneko aldiz hemen euskaraz honetaz mintzatu garela. Komeniko litzateke aurrerantzean ere gai honetaz gehiago sakontzea, batez ere artxiboetako liburu eta izkribuak ikertuz. Baina ez udal-artxiboak bakarrik, baita parroketakoak eta elizbarrutikoak ere.

Gure ustez, ezinbestekoa da gauza bat argi uztea. Hain zuzen ere askotan alde batera utzi da Eliza instituzioa dela eta, beraz, eginbeharrak eta eskubideak izan ditzakeela. Mendetan zehar horrela azaldu baita Eliza.

Bere jatorritik Eliza, instituzio gisa, ondasunen jabe izan da

Hasiera-hasieratik kristau-komunitatea modu konkretuan antolatu zen. Jesusek aukeratutako hamabi apostoluak zeuden eta haien buru Pedro. Haien ondorengoak apezpikuak ditugu eta Erromakoa Pedoren ondorengoa. Instituzio hau modu jakin batean antolatu zen, gobernu konkretu batekin, doktrina zehatz batekin, kultu berezi batekin eta pobreei laguntzeko baliabide konkretuak sortuz.

Instituzio-izate horrek eta irauteko borondateak nahitaezkoa egiten dute ondasunak eduki behar izatea. Bere helburuak lortzeko Elizak sostengu materiala behar du izan: tenpluak, liburuak, jantzi liturgikoak, apaizen mantenua, etab.

Aurreneko hiru mendeetan adibide bat baino gehiago aipa daitezke. Severo enperadorearen garaian (225-235), auzia izan zen lur-sail bat zela-eta ardo-saltzaile batzuen eta Erromako kristau-komunitatearen artean. Auzitegiak kristauei arrazoia eman zien. Horrek dakar *de facto* kristau-komunitateari ondasunen jabe izateko eskubidea aitortzen zitzaiola (Álvarez, 2001: 164-165). Kornelio Aita Santuaren garaian (251-253) Erroman baziren hogeitabi bat eliza. IV. mendean Erroman berrogei eliza baziren eta Alexandrian hamar. Tenplu haiek parrokia urbanoen jatorritzat har ditzakegu (Orlandis, 2003: 120).

Galiano (260-268) enperadoreak, bere aita Valerianoren pertsekuzioaren ondoren, kristauei kendutako kanposantu eta kulturako toki guztiak bueltatu zitkien (Álvarez, 2001: 94). Dioklezianoren pertsekuzioaren ondoren, Galeroren tolerantzia-ediktuak (311) bi erabaki hartu zituen kristauen mesederako: «ut denuo sint christiani» (kristau-taldearen legalizazioa) eta «ut conventicula sua componant» (kultutokiak eraiki eta edukitzeko baimena) (Álvarez, 2001: 96). Azkenik, «Milango ediktua» delakoan (313) itzuli zitzaizkion kristauen korporazioari kendutako ondasunak.

Elizak bere libertatea lortu zuen eta, ondoren, donazioen bidez batez ere (enperadore batzuegandik baita zenbait partikularrengandik ere), bere ondarea handitzeko aukera izan zuen. 321. urtean legeak herentziak jasotzeko eskubidea aitortu zion Elizari (Álvarez, 2001: 229).

1. Iruñeko Elizbarrutiko artxibozaina den Jose Luis Sales Tirapu apaizari eskerrak eman nahi dizkiogu bihotz-bihotzez eskaini dizkigun argibideengatik.

Aipatzekoa da kulturako eraikinak eraikitzeaz gain dokumentu zaharretan askotan agertzen zaigula Elizak behartsuen alde egindako lana. Ordura arte ez zen horrelakorik ezagutzen. III. mendearen erdialdera Erromako Elizak 1.500 behartsu baino gehiago zituen bere kargu. IV. mendean ospitaleak eta bestelako harrera-egoitzak sortu ziren pobre eta gaixoentzat². Juliano enperadoreak («apostata» delakoak, alegia) aipatzen du kristautasunari bere arrakasta handia hortik zetorkiola, batez ere behartsuak zaintzen eta hildakoei lur ematen agertzen zuen arduratik³.

Elizak bere jarraitzaileengandik ekarpen ekonomiko ugari jaso izan ditu

Enperadore eta handizkien laguntzaz aparte, eliztar soilek ere laguntza ekonomikoa eskaintzen zuten hasieratik. II. mendean San Justinok dio igandeko mezetan denek beren laguntza ekonomikoa ematen zutela eskaintzak aurkeztean, batzuek dirutan eta beste batzuek espezieetan⁴. Eraikinak mantentzeko, apaizen mantenturako eta pobreei laguntzeko erabiltzen ziren ekarpen horiek (Álvarez, 2001: 172)⁵. Askotan arropak eta oinetakoak ere ematen ziren, ez zutenei partitze-ko. Sinplizio Aita Santuak V. mendean honela dekretatu zuen: lau zatitan erabili behar zela mezatan jasotakoa: 1) apezpikua, 2) apaizak, 3) kultua eta 4) pobreak (Aldea, 1973: 1.888).

Elizaren antolakuntza: elizbarrutia edo «diozesia» eta parrokia

Bestalde, Elizaren lurralde-antolakuntzari dagokionez, elizbarrutiak eta parrokiak sortzen dira. Hasiera batean, parrokiak hirietan sortu ziren eta geroxeago landa-ingurunean (*pagus*). Hori dela-eta, eliza-jabegoaren subjektua eta elizabizitzaren protagonista bakarra aurrena diozesia bazen ere, bere apezpiku buru zuela, ondoren beste esparru txikiago batzuk izango dira protagonistak: parrokiak, monasterioak, etab. (Aldea, 1973: 1.888). Erdi Aroan, pixkanaka eta gorabehera askorekin, parrokia bihurtuko da kristau-unibertsoaren instituziorik dinamikoenetako bat. Mendetan zehar parrokia-instituzioa lau elementuk osatuko dute batez ere: eliztarrek, parrokoak, jurisdikzio-eremuak eta ondareak (patrimonioa, ondasunak). Ondare horretan sartzen ziren gehienetan tenplua, kanposantua⁶, ermitak (garai bateko tenplu parrokialak edo esparru sakratuaren zabaltzea herri bereko beste dermioetara), etab.

2. Eusebio de Cesarea, *Historia Eclesiástica*, VI, 43, 11.

3. Ikusi Juliano enperadoreak Teodoro apaiz jentilari idatzitako eskutitza: Amiano Marcelino, *Epistolario*, 89b: «Nosotros honramos al hospitalario Júpiter y somos más inhospitalarios que los escitas. La indiferencia e insensibilidad de nuestros sacerdotes contrasta con el ejercicio de la filantropía entre los galileos [...]. Haz que se abran algunos hospicios en la ciudad, a fin de que sean partícipes de nuestra humanidad no sólo los necesitados pertenecientes a nuestra religión, sino quienquiera, de cualquier religión [...]. Mientras ningún judío pide limosna, mientras los impíos galileos alimentan sus propios pobres y los nuestros, es vergonzoso saber que nuestros pobres aparezcan desprovistos de toda ayuda por parte nuestra».

4. Tertuliano, *Apológico*, 39, 5; *Didascalia*, IX, 34, 4-6.

5. *Tradición apostólica* 5, 1-2; 28, 1-8.

6. «XVII. mendeko erdi aldera arte (1630?) elizatarian edo zimitorioan lurperatzen zen. Ondoren, 1630etik 1830 arte, 200 bat urtez, eliza barruan eta geroztik kanposantuetan» (Aleman, 2008).

Hasierako parrokien oinarri materialak askotan bertako jauntxoek jarriak ziren eta elizak haien menpe egon ziren luzaro: hori dela-eta, «berezko elizak» ('iglesias propias') esaten zaie (Orlandis, 2003: 120). Geroxeago, «patronatu» delakoaz hitz egiterakoan, aipatuko dugu nola Elizaren hierarkia eta zuzenbide kanonikoa saiatu ziren Erdi Aroan jauntxoaren autoritatea eta esku-sartzea murrizten (Regatillo, 1956: 316).

Parrokia eta kontzejua: «Herriaz» ari garenean, zer esan nahi dugu?

Hona hemen gaur jorratzen ari garen kuestiorako garrantzi handiko puntu bat. Hain zuzen ere, Erdi Arotik gure garaietara, gure herrietan jende berberak bi instituzioetako partaide izan ditugu: kontzejua batetik eta parrokia bestetik, gizarte zibileko partaide eta, aldi berean, gizarte espiritual edo eklesiastikokoak. Bi instituzioak lurralde berean aritzen ziren (dira) eta kasu gehienetan pertsona berberak osatuak ziren. Bi instituzio hauek ez ziren kontrakoak (batzuetan ikamikak sor daitezkeen arren), are gehiago, elkarlanean aritzeko borondatea zuten herri beraren zerbitzuan. Baina bi pertsona juridiko ezberdin ziren (dira) eta bakoitzak bere eginkizunak zituen, bere aktuzio-esparruak, bere zuzenbide propioa (zibila eta kanonikoa) eta bere sistema ekonomikoa. Alkatea ez zen (ez da) parrokia («abadea»), parrokia ere ez zen alkatea. Era berean, kontzejua ez zen parrokia, ezta parrokia kontzejua ere. Biak beste maila goreneko instituzio batzuen barnean zeuden (daude): Nafarroako erresuma, alde batetik, eta Iruñeko elizbarruti edo apezpikutzak bestetik. Ez daiteke gure herrietako eta gure elizetako historia ongi ulertu bi instituzio horiek bereizi gabe eta, aldi berean, haien arteko harreman estuak kontuan hartu gabe. Horretarako ezinbestekoa da udal-artxi-boekin eta Nafarroako artxibo orokorrekin batera, parrokietako eta elizbarrutiko artxibo historikoak ikertzea. Hau ahaztuz gero, ez da estudio seriorik gauzatuko⁷. Azken finean, «herriaz» mintzatzean kontu handiz ibili beharko genuke zertaz mintzatzen ari garen: «herria» erakunde eta gizarte zibila den aldetik, Nafarroako erresumaren eta erregeen legeen menpean, edo «herria» erakunde eta gizarte eklesiastikoa den aldetik («kristau-herria», alegia), Iruñeko elizbarrutiaren eta apezpikuen legeen menpean. Errealitate hau argitzeko eta behar bezala ulertzeko oso adibide egokia dugu 1995eko azaroaren 18an Teruelgo Probintzia Auzitegian izandako auzia («en que se cuestiona si la propiedad de un templo construido en el siglo XVII corresponde al Ayuntamiento o a la Iglesia») eta Auzitegiak emandako sententzia⁸.

7. «Como dijo hace ya años Pierre Goubert, sin los libros parroquiales sería imposible la historia cabal de Europa», cit. Pérez Olló, 2004; Hualde, 2007. Iruñeko Elizbarrutiko artxiboa eta parrokietako artxiiboak datu-iturri emankorrak ditugu zenbait arlotarako, hala nola Artearen Historiarako (Fernández Gracia, 2004).

8. «En el año 1640 los vecinos del pueblo de Calanda acordaron aportar los bienes necesarios para la edificación de una ermita a la Virgen del Pilar, que se construyó con las aportaciones de los habitantes de la localidad. La Iglesia católica ha venido poseyendo pacíficamente el edificio desde entonces, pero el Obispado no inscribió en el Registro de la Propiedad de Alcañiz su derecho de dominio sobre el citado templo, llamado del Pilar del Milagro, hasta el día 5 de mayo de 1984. Sin embargo, el Ayuntamiento impugnó el asiento registral y solicitó que se declare que el templo es de su propiedad, alegando que el templo en litigio se construyó *con las aportaciones particulares de todo el*

Parrokiaren oinarrizko diru-iturriak: hamarrenak eta primiziak (gure parrokietako artxiboetako «tazmia» eta «fabrika» liburuetan azaltzen direnak)

Urteak aurrera joan ahala, parrokia bakoitzak bere sostengurako gisa ezberdinetako laguntzak jasotzen zituen bere kristau edo eliztarrengandik: estola-esku-bideak, limosnak, donazioak, herentziak, fundazioak... Parrokiak, gainera, hamarrenak eta primiziak jasoko zituen. Hamarrenak fruituen eta abereen ehuneko hamarra ziren eta primiziak lehen fruituak (40 aletik bat, hau da % 2,5)⁹. Hamarrenak apaizen mantenerako izaten ziren; primiziak, berriz, elizen gastuetarako. Hori dela-eta, parrokiek bi gisatako kontu-liburuak gordetzen dituzte beren artxibo historikoetan. Batetik «tazmia» liburuak: horietan hamarrenak nola jasotzen eta partitzen ziren idazten zen. Bestetik, berriz, «fabrika» liburuak: hauetan primizietatik jasotakoa idazten zen eta tenpluan egindako gastu guztiak (obrak, konponketak, jantzi liturgikoak, ontzi sakratuak, ezkilak, irudiak, organoa, organistaren soldata, sakristaurena, etab.) (Floristán, 2004)¹⁰.

Zerga hauen jatorri zaharra Israelgo herrian aurki daiteke, Itun Zaharreko *Lebitarrena* eta *Deuteronomio* liburuetan hain zuzen, Moisesen legean¹¹. Kristau-elkarteari dagokionez, III. mendetik zerga hauen lehendabiziko aztarnak topa daitezke¹². Bisigodoen garaian mezako denboran eliztarrek hamarrenak eta primiziak eskaintzen zituzten beren borondatez (Aldea, 1973: 1.888). Toki batzuetan VI. mendearen azken aldera lege kanonikoak derrigorrezkotzat jotzen zuen zerga hauek ordaintzea¹³. XII. mendearen hasieran hamarrenak kristau denentzat nahitaez ordaindu beharrekoak bilakatu ziren. Hain justu ere, honako produktuen hamarrena ordaintzen zen: baratzeko produktuena, zerealena, ardoarena, fruitue-

*pueblo calandino sobre finales del siglo XVII, que dichas aportaciones consistieron tanto en metálico como en el desinteresado trabajo del pueblo en aras de su construcción y que por clamor popular la propiedad de dicho templo es y ha sido exclusiva y excluyente de la población y por tanto de su Ayuntamiento, órgano representativo máximo que defiende y administra los bienes de la comunidad. La Audiencia, sin embargo, entendió que no es posible considerar acreditado que la parte demandante sea quien ostenta la representación jurídica de los vecinos de Calanda, a los efectos que ahora nos ocupan, ni mucho menos que en algún momento la Corporación referida haya adquirido la propiedad del reiterado templo, aun cuando lo califique como bien municipal de carácter patrimonial, sino que por el contrario debe estimarse que en realidad hubo una donación de bienes y servicios a la Iglesia católica, o mejor, a la Virgen del Pilar, por lo que fue desestimada la pretensión del Ayuntamiento» (Ruano, 2007: 58-59; *Revista General de Derecho Canónico y Derecho Eclesiástico del Estado*, 14 [2007], 1-26).*

9. Horrek esan nahi du nekazaritza eta abeltzaintzatik bizi zirenek bakarrik ordaintzen zituztela hamarrenak eta primiziak, hau da, batez ere nekazariak eta abeltzainek eutsi egin diotela historian zehar parrokiari.

10. 1590eko Iruñeko sinodoak tazmia eta primizia liburuen erabilera arautu zuen (*Constituciones sinodales del Obispado de Pamplona*, Iruñea, 1591, fol. 86).

11. «Urtero zeuen lurreko uztaren emaitzen hamarrena bereiziko duzue» (Dt 14, 22); «Lurreko emaitzen hamarrenak ere bai ereindakoarenak, bai arbola fruituenak Jaunarenak dira eta Berari daude sagaratuak [...] Abereei dagokienez, abelgorria nahiz abere xehea izan, hamarretik bat Jaunari sagaratu zaio, zozketa bidez aukeraturaz» (Lb 27, 30-32); «Jaunak zure Jainkoak ondareztat emango dizun lurraldean sartu, haren jabe egin eta bertan biziko zarenean, Jaunak emandako lurraldeak ekarritako emaitza guztien lehen fruituak saski batean hartu eta Jaunak zure Jainkoak bizileku eta kultulekutzat aukeratuko duen tokira joango zara [...] Apaizak zure eskuetatik saskia hartu eta Jaunaren zure Jainkoaren aldare aurrean ipiniko du» (Dt 26, 1-4).

12. *Didascalia*, IX, 34, 5 eta 35; *Constituciones apostólicas*, VII, 29, 1-3; Álvarez, 2001: 173.

13. Maconeko sinodoak (585) hala agindu zuen Frantzian (Felones, 1982: 146).

na, argizariarena, eztiarena, abereena, artilearena, gaztarena, hegaztiena, arrantzarena, etab. Zerga hau eklesiastikoa zen —ez zibila (ez erregearena ezta muni- zipala ere)—, eliztarrek soilik Elizari ordaintzen zioten¹⁴. Horregatik kristau ez zenak, eliztar ez zenak, ez zion horrelako zergarik ordaindu beharrik herriko parrokiari (kasu honetan zeuden musulmanak eta juduak Nafarroako Erriberako herrietan, adibidez).

Eklesiastikoa zelako, lege eta autoritate eklesiastikoez arautzen zuten zerga- sistema hau. Zenbait kasutan apezpikuek eta bestelako erakunde eklesiastikoez, hala nola Orreagako kolegiatak, beren ardurapean hartzen zituzten parrokia nagusiak eta bertako ondasun-sarreren administrazioa. Elizako autoritateek bazuten ahalmena ere zerga horien zati bat erregeari («tercias reales», «excusado», «novales» direlakoak) edo beste jauntxo sekular batzuei bideratzeko. Esate bate- rako, Klemente IV.a Aita Santuak Nafarroako Teobaldo II.a erregeari erreinuan elizek jasotzen zituzten zergen hamarrena eman zion hiru urtez (1267), modu horretan erregeak gurutzada bultzatu ahal izateko (Felones, 1982: 139)¹⁵. Beste alde batetik, Nafarroako erregeak Iruñerriko parrokien primizietako ehuneko hamarra bereganatu nahi izan zuen Uharte Arakilgo fortifikazioak eta Iruñeko kate- draleko lanak ordaintzeko; baina asmo hau burutu ahal izateko apezpikuari baimena eskatu behar izan zion. Apezpikuak onartu zuen parrokien beharrak horniturik gelditzeko baldintzarekin (1423)¹⁶.

Elizbarruti edo apezpikutza bakoitzean ere bertako sinodo edo eliza-batzarrek arautu zuten zerga mota hau: hala nola Iruñean, Arnaldo Barbazan apezpikuaren sinodoak (1354) edo Alejandro Cesarini kardinalarenak (1531) (Castelar, 2007: 379, 433-436 eta 761-765). Aro modernoan 1590eko Iruñeko sinodoak arautuko ditu XIX. mendera arte hamarrenak eta primiziak —Elizaren gainerako hainbat erakunde bezala—. Sinodo horretan adierazten da elizbarrutiko pertsona guztiek Jainkoarengandik jasotako fruituen hamarrena eman behar dutela¹⁷.

Hamarrenen instituzio honek gorabehera franko izan zituen mendetan zehar. Laurden bat apezpikuarentzat zen, beste hiru laurdenetatik erdia parrokoarentzat —bere eta pobreen mantenurako— eta beste erdia parrokiako kabildoarentzat (hau da, parrokiako gainerako apaizentzat).

Primiziak, aldiz, ia ez du inolako aldaketarik jasan historian zehar. Primizia —edo «Elizaren primizia», parrokia-liburuetan aipatzen den bezala— hiru urterik behin jasotzen zen, kontsideratzen baitzen bi urte emankorrak zirela eta bestea ez, ordea. Askotan errentan ematen zen eta horrek elizaren fabrikari diru-sarrera egonkorra ematen zion. Primizien errentamendua publikoki eta notarioaren aurrean egin beharra zegoen¹⁸. 1590eko Iruñeko sinodoak zioen primiziak oso-

14. Betire elizaren hamarrenak ez ditugu izen bereko beste zerga zibilekin nahastu behar. Adibidez, bisigodoen garaian *decimum* izena zuen lurrengatik ordaintzen zen zerga batekin (Cf. Martínez Díez, 1972: 757).

15. Hori dela eta, egin zen Nafarroan *Libro del Rediezmo* delakoa.

16. José Ramón Castro Álava, *Catálogo del Archivo General. Sección de Comptos*, Iruñea, XXXV.

17. Rojas y Sandoval, B. de (1591): *Constituciones sinodales del Obispado de Pamplona*, Iruñea, fol. 84 ifrentzua.

18. Rojas y Sandoval, *op. cit.* fol. 89i.

osorik parrokian ordaindu behar zirela. Primizia gordetzeko eta administratzeko primiziaren etxea eta primiziero edo maiordomoak sortu ziren. Aipatutako sinodoak eskatzen zuen bi maiordomo izatea parrokia bakoitzean. Bata elizgizona eta bestea sekularra elizen ondasun hauek defendatzeko¹⁹. Maiordomoei soldata eman behar zitzairen eta elizen ondasunak gastatzeko —diru kopuru handia gastatzeko, behinik behin— ezinbestekoa zen apezpikuaren edo bikario nagusiaren baimena²⁰. Maiordomo hauek guztiek, bai elizgizonek bai sekularrek, bai parrokiakoek bai gainerako eliza-erakundeetakoek (ospitaleak, ermitak, katedralak, etab.), apezpikuari edo bere ordezkariari eman behar zizkieten kontuak urtero²¹. Kontumate horietan, nahi izanez gero, herriko ordezkariak presente egon zitezkeen («a las cuentas que tomaren los visitadores de las primicias se hallen los jurados o justicias del pueblo, si quisieren»)²². Sinodoak agindu zuen eliza bakoitzean sakristaua egon beharko zela eta primizietatik ordaindu behar zitzaiola²³. Aldi berean agindu zuen parrokia bakoitzeko abade, erretore eta bikarioak parrokiako etxean bizi behar zirela eta horrelako etxerik ez zen lekuetan, edo gaizki zegoen lekuetan, etxe hori egin behar zela primizien diruaz ordainduta²⁴. Ermitei dago-kienez, sinodoak agindu zuen giltzez itxita egotea eta ongi mantentzea ermita bakoitzaren limosna eta berezko errentei esker²⁵. Azkenik, aipatutako sinodoak eliza, ermita, ospitale eta eliza-erakunde guztien ondasunen inbentarioa egiteko agindu zuen²⁶.

Parrokietako fabrika-liburuetan, oso egoera ezberdinen artean, elizaren primiziak nola erabiltzen ziren aurki daiteke: obrak eta konponketak²⁷, sakristauen eta organisten soldata... Adibide gisa Uharte Arakilgo kasu batzuk aipa ditzagun: presbiterioa eta eliza-atariko harlauzak egin zireneko gastuetan, harginari ordaindutakoaz gain, harriz betetako sei gurdi eraman zituzten eliztarrentzat jana ere ordaindu zen (1714)²⁸; urte batzuk geroago parrokiak 2.400 erreale ordaindu zizkion «a la villa, por el acarreto de todo material para las obras nuevas de la parroquia» (1786ko kontuak)²⁹; 1789an parrokiak 1.714 erreale eta 8 marabedi itzuli zizkion udalari honek aurreratu baitzion diru hori obrak ordaindu ahal izateko³⁰; 1790ean parrokiak 5.359 erreale eta 19 marabedi jaso zituen maileguan udaletik «cuya cantidad es para mayor suma que la iglesia debe a la villa por el adelantamiento que ésta le hizo cuando se ejecutaron las obras nuevas de la parroquia»³¹; 1797an parrokiak itzuli zion udalari zor zion guztia³². Kasu hauetan

19. *Op. cit.* fol. 88i.

20. *Op. cit.* fol. 90 aurkia.

21. *Op. cit.* fol. 93a.

22. *Op. cit.* fol. 90a.

23. *Op. cit.* fol. 31.

24. *Op. cit.* fol. 70.

25. *Op. cit.* fol. 91i.

26. *Op. cit.* fol. 89a., 100i., 104a.

27. 1590eko sinodoan arautzen da ere elizetako obrak nola egin behar diren: *op. cit.* fol. 122-125 (*De ecclesiis aedificandis*).

28. UHARTE ARAKIL, San Joan Bataiatzaile Parrokiako Artxiboa, *Libro de fábrica (1714-1882)*, fol. 2i.

29. UHARTE ARAKIL, *op. cit.* fol. 141i.

30. *Op. cit.* fol. 160i.

31. *Op. cit.* fol. 166.

32. *Op. cit.* fol. 186i.

argi eta garbi ikus daiteke nola bereizten ziren gizarte bereko bi erakundeak (parrokia – udala) eta haien ekonomia.

Batzuetan ongile partikularrak dira dirua ematen dutenak, baita parrokoak ere. Esate baterako, Leitzako parrokiako erretaula nagusian ikus daitekeen San Migelen irudia, Pedro de Soravillak egindakoa, 1735ean bertako abade Fermin Zabaletak ordaindu eta parrokiari erregalatu zion³³. Martin Errazuk, Iruñeko katedraleko xantreak, berriz, Uharte Arakilgo parrokiari zilarrezko gurutzea eta bi kopoi erregalatu zizkion 1714an³⁴.

Erakunde zibilen presentzia prozesu honetan

Gure parrokia gehienak primizien bidez mantendu izan dira, hau da, parrokiako diruaz, eliztarren lan eta diruaz. Lege kanonikoak arautzen zituen horiek guztiak. Halere, instituzio zibilek ere askotan parte hartu izan dute Elizaren prozesu horretan, bi aginteak (zibila eta eklesiastikoa) elkarrekin aritzen baitziren lanean. Gure garaietan beharbada ez da ongi ulertzen, baina garai hartako mentalitatea oso bestelakoa zen. Autoritate zibilak kristauak ziren eta erakunde zibilek ere Elizak irakatsitako kristau-fedea, morala eta ikuspegia onartzen zituzten oinarri bezala beren eginbeharra betetzeko. Haien ustetan, Elizari laguntzea komenigarria zen, are gehiago, herriaren onura bilatzeko ezinbestekotzat jotzen zen Elizaren lana erraztea³⁵. Bestalde, Elizak bere gain hartzen zituen eta kristauen diruaz artatzen zituen behartsuak, gaixoak, umezurtzak... eta beste zerbitzu asko eskaintzen zituen erakunde zibilen mesederako³⁶. Elizak onartzen zuen askotan autoritate zibilen laguntza eta zaintza parrokiako ondasunen administrazioan³⁷.

Beste erakunde bat aipa dezagun horretaz behar bezala hitz egin ahal izateko: patronatua.

33. LEITZA, San Migel Parrokiako Artxiboa, *Libro de fábrica (1679-1806)*, 1734-1735 urteko kontuak.

34. UHARTE ARAKIL, San Joan Bataiatzaile Parrokiako Artxiboa, *Libro de fábrica (1714-1882)*, fol. 3i-4. Echeverría eta Fernández Gracia, 1987: 52, 115.

35. «Eliztarrek, bai orain eta bai lehen ere, elizei zutik eusten edo berriak egiten lagundu izan dute; eta Erakunde publikoen dirulaguntza edo subentzioak ere izan dira berriak egiteko eta zaharrak txukuntzeko» (Aleman, 2008).

36. Esate baterako, oraindik udal-artxiboak existitzen ez zirenean parrokiak gordetzen zituen herriko zenbait dokumentu. 2008ko maiatzaren 9an Oibarko Udalak eskertu egin zion ofizialki bertako San Pedro parrokiari beronek zentzu horretan egindakoagatik: «En presencia en el Acto de la Sesión del parroco de Aibar/Oibar D. Miguel Bezunartea Azparren, se procede a la firma del documento por parte del Alcalde D. Manuel Martínez Aldunate, en representación del Ayuntamiento de Aibar/Oibar y de D. Miguel Bezunartea Azparren, Parroco de Aibar/Oibar, de la entrega por la Parroquia de Aibar/Oibar al Ayuntamiento del pergamino original del privilegio original de hidalguía universal, concedido a la villa de Aibar por el Rey Carlos III el Noble en 1.397. Así mismo se hace entrega por la Parroquia de la Copia de 1.917, del Pergamino de la Tregua de Paz firmada por Orden Real entre los Concejos de Sanguesa y Aibar en el año 1.382. Al efecto la Corporación acuerda: 1º- Recibir los pergaminos entregados por la Parroquia de Aibar/Oibar, para su custodia y conservación en el Archivo Municipal; 2º- Agradecer públicamente a la Parroquia de Aibar/Oibar, la celosa custodia y conservación durante más de seis siglos del Privilegio de hidalguía concedido en 1.397 a la villa de Aibar, por el Rey Carlos III el Noble y de la copia de 1.917 del pergamino de la Tregua de Paz, firmada por Orden Real entre los Concejos de Sanguesa y Aibar en 1.382».

37. Rojas y Sandoval, B. de (1591): *Constituciones sinodales del Obispado de Pamplona*, Iruñea, fol. 89a.

Patronatu-eskubidea

Patronatua aspaldiko instituzioa dugu, zuzenbide erromatarretik datorrena (Teodosio eta Justiniano enperadoreen lege-bildumetan aipatzen da) eta elizak eraikitzeke eta mantentzeko oso inportantea izan zena. Alde horretatik, erakunde honek hainbat aldaketa eta interpretazio jasan ditu mendetan zehar. Erdi Aroko lehenbiziko mendeetan, VI. mendetik XII. mendera arte gutxi gorabehera, patronatua berezko elizen errealitateari lotuta azaltzen zaigu. Aldi berean, garai haietan Eliza saiatu zen pixkanaka tenpluak beren jauntxoengandik askatzen (Rodríguez Gil, 1999). Prozesu horretan ikaragarritzko garrantzia izan zuen erreforma gregorianoak eta honek ekarritako zuzenbide kanonikoaren indartzeak. Aginte eklesiastikoaren indartze-bide honi segituz, Alejandro III.a Aita Santuak (1159-1181) arautu zuen patronatua eta Trentoko Kontzilioak, XVI. mendean, arau horiek berak ametitu zituen. Egoera hau 1917ko kode kanonikoa argitaratu arte mantendu zen (Regatillo, 1956: 316).

Azken mendeetan zuzenbide kanonikoan jaso eta onartu den patronatu-eskubidea hauxe dugu: Elizak bere ongileei esker ona agertzeko izan duen modua. Tenplua eraikitzeke lur-sail bat ematen zuenari, eliza eraikitzen zuenari eta kultu-gastuetarako beharrezkoa zena «dotatzen» zuenari patronatu-eskubidea ematen zitzaion eliza horren gain bere eskubide eta obligazioekin³⁸. Honako hauek ditugu patronoen betebeharrak³⁹: 1) Ordinarioari abisatzea elizaren ondusunak gaizki erabiltzen zirenean; 2) eliza berreraikitzea edo ordinararioaren ustez egin beharreko konponketak egitea, 1.186. kanonak dioen bezala elizak horretarako dirurik ez zuenean; 3) errentak osatzea eliza horren egoera ekonomikoa oso txarra zenean. Bestalde, patronoen eskubideak hiru gisatakokoak ziren⁴⁰: 1) Presentazio-eskubidea, hau da, elizarako edo benefiziorako apaiza aurkezteko eskubidea⁴¹; 2) mantenu-eskubidea: elizako errentetatik jatekoa hartzea premia bere errurik gabe suertatuz gero; 3) ohorezko eskubideak: bere familiaren armarrria elizan ipintzea, toki berezi bat edukitzea (ez presbiterioan ordea), etab.

Patronoa izan zitekeen jauntxo partikular bat (Valdespinako markesa Astigarra-gako parrokiaren kasuan, esate baterako), beste erakunde eklesiastiko bat (Orreagako kolegiata), edo instituzio zibil bat (herritarrak beren kontzejuekin...). Hirugarren kasuan patronatua bi gisatakoko izan zitekeen: «mere lego» (hau da, kontzejuak edo udalak hartzen zuen patronatuaren ardura) edo «mistoa» (kontzejuaren eta parrokiako kabildoarena). Betiere dena primiziaren bidez ordainduz.

Ez zen beti berbera patrono «elizagilea» eta apaiza aurkezten edo aukeratzen zuena: Uharte Arakilen, adibidez, Iruñeko katedraleko xantreak aurkezten zuen

38. 1.448. Kanonaren komentarioa: Miguélez Domínguez, L. *et al.* (ed.) (1949): *Código de Derecho Canónico*, BAC, Madril.

39. Miguélez Domínguez, L. *et al.* (ed.) (1949), *op. cit.*, kan. 1.469.

40. *op. cit.*, kan. 1.455.

41. Parrokoak izendatzeko moduak ez ziren beti berdinak izan. Zenbait lurraldetan apaizen eta eliztar batzuen artean aukeratzen zituzten gero apezpikuak kargua emateko. Parrokia propioetan eta patronato eskubidea existitzen zen kasuetan, jauntxo edo erakunde batek presentazio-eskubidea edukitzen zuen. Lege kanonikoa saiatu zen presentazio hori arautzen eta baldintzatzen (Orlandis, 2003: 121).

apaiza (berak zuen presentazio-eskubidea) eta herria zen elizako fabrikaren patro-
noa.

Patronatu-eskubidea ere gal zitekeen zenbait kasutan: Aulki Santuak ezezt
zezakeen; patronoak ere uko egin ziezaiokeen bere eskubideari; patronoak simo-
nia, heresia, zisma edo apostasia eginez gero edo elizako ondasunak berega-
natuz gero, bere eskubidea galzten zuen.

XIX. mendean patronatu gehienak desagertu ziren; gutxi batzuek iraun zuten
ordea XX. mendera arte eta baten bat mende horretan sortua izan zen. Kasu
horretan dago Nafarroako Urraulgoitin dagoen Santa Fe ermitari dagokiona⁴².
Vatikanoko II. Kontzilioak (1962-1965) eskatu zien patrono partikularrei (jauntxoei)
beren presentazio-eskubideei uko egiteko. Hala egin zuen, esate baterako,
Astigarragako Valdespinako markesak Donostiako Setien apezpikuaren garaian.

XIX. mendeko gorabeherak

XIX. mendeko gerrateen ondorioz (frantzesada, karlistadak...) parrokiek asko
sufritu zuten eta beren ondareak ere asko gutxitu ziren. Parrokia batzuetan elizako
zilarra (ontzi sakratuak, gurutzeak...) saldu zen herriaren premiei aurre egiteko.
Kontzejuek diru hori bueltatzeko konpromisoa hartzen zuten, halere kasu gehie-
netan ez zen posible izan eta barkatu egin zitzaien.

Estatu liberalak, zor handia zuenez gero, desamortizazio bat baino gehiago
burutu zituen. Eliza kaltetuenetako bat izan zen. Desamortizatorik aipagarrienak
Mendizabalena eta Madozena izan ziren. Ordena erlijiosoei eta parrokiei ondasun
pilo ikaragarria kendu egin zitzaien saltzeko (Donézar, 1991; Mutiloa, 1972).

1837ko legeak (1837-VII-29) monasterio, komentu, kolegio, kongregazio eta
etxe erlijioso guztiak desagertzeko agintzearekin batera, hamarrenak eta primiziak
bertan behera utzi zituen (Aldea, 1973: 1.892). 1841eko abuztuaren 14ko errege-
dekretuak behin betiko deuseztatu zituen. Jendeak, ordea, hamarrenak ez, baina
primiziak boluntarioki ordaintzen zituen indar publikoak erabat debekatu arte
(Martínez Díez, 1972: 757). 1851. urtean Aulki Santuak Espainarekin konkordatu
sinatu zuen. Bertan Elizak bere ondasunak berreskuratzeari uko egiten zion

42. 1920. urtean errestituratu egin zen Santa Fe ermitaren gain Urraulgoitiko Udalak izandako garai
bateko patronatua. Bertan argi eta garbi bereizi egin ziren patronatua eta jabetza: «1. El Ayuntamiento
del Valle de Urraul Alto, como patrono del priorato de Santa Fe, reconoce a favor de la mitra de la
Diócesis de Pamplona el derecho de propiedad sobre la iglesia de Santa Fe con todos sus bienes
muebles e inmuebles, derechos, censos y créditos que pertenezcan en cualquier tiempo al priorato; y
con el fin de que este derecho sea por siempre reconocido por todos los ayuntamientos del Valle que
en lo sucesivo sean, se estampará este documento en el libro de actas del mismo y se entregará al
ordinario una copia para que sea guardada en el Archivo Diocesano. 2. El Excmo e Ilmo Sr. Obispo de
Pamplona, por sí y por sus sucesores, otorga, concede y reconoce a favor del Ayuntamiento del Valle
de Urraul Alto el derecho de patronato sobre el priorato de Santa Fe con todos los derechos,
facultades, privilegios, cargas y obligaciones propios de los patronos, concediéndole, además, la libre
administración de todos los bienes que al priorato pertenezcan, debiendo el señor patrono formular un
inventario de todos esos bienes, entregando una copia autorizada del mismo para que sea guardada
en el citado Archivo Diocesano, en el cual inventario se irán anotando oportunamente todas las altas y
bajas originadas por las nuevas adquisiciones o pérdida o destrucción de los objetos existentes»
(Archivo Diocesano de Pamplona, *Epároz: Caja propia*, 3. zk.).

(ezinezkoa baitzen kasu askotan) eta ordainean Estatuak Elizaren gastuei aurre egiteko urtero subentziora emateko konpromisoa hartu zuen. Horri «culto y clero» deitu zitzaion. Edozein kasutan, hamarrenak eta primiziak baino askozaz ere txikiagoak ziren kopuru horiek⁴³.

1881ean Iruñeko elizbarrutiko parrokien antolakuntza berria gauzatu zen egoera berriari egokitzeko asmoz («Arreglo parroquial» deitu zitzaion horri). Aldi berean dekretatu zen parrokia bakoitzaren administrazioa bertako apaizek egin beharko zutela eliztarren laguntzarekin («Junta de Fábrica» delakoa osatuz)⁴⁴. Patronatuak desagertu ziren eta harrezkero kontzejuek ez zuten parte hartzen parrokiaren ondasunen zaintzan.

Jabetza Erregistroa eta tenplu katolikoaren immatrikulazioa⁴⁵

1861eko otsailaren 8ko Hipoteka Legeak sortu zuen Jabetza Erregistroa ondasun higiezinak inskribatzeko (lehenago ez zen mota honetako erregistrorik existitzen eta inskribatzeko modurik ez zegoen, beraz). 1863ko azaroaren 6ko errege-dekretuak arautu zuen. Hasieratik zenbait ondasun inskripzioetik salbuesmentu ziren: Estatuarenak, publikoak zirenak, hala nola itsas bazterrak, errekek, errepi-deak eta bestelako bideak, burdinazkoak izan ezik, kaleak, plazak... eta kultu katolikora zuzenduriko tenpluak. Francoren garaian hipoteka-lege berria argitara eman zen. 1947an beste dekretu batek inskripzioen egoera berdin mantendu zuen. Hipoteka-arautegiak (393/1959) ere bere 5. artikuluan jaso zuen salbuespen hori.

Denek ez zuten modu berean interpretatu salbuespena baina kasu askotan elizari ukatu egin zitzaion tenpluak inskribatzea. Arau hori, praktikan, elizarentzat diskriminazio bat izan da eta kaltegarria gainera, ezin izan baititu bere tenpluak erregistroaren babespean inskribatu.

Parrokiako etxeei, lur-sailei eta parrokien eta elizbarrutien bestelako ondasunei dagokienez, ez zen horrelako salbuespenik. Nafarroan kasu, 1930eko hamarkadan horietako asko immatrikulatu izan dira erregistroan. Beste batzuk geroago ere 1980ko hamarkadan, etab. Baina tenpluak ez, arestian aipatutako salbuespena zela eta.

1998an, Valentziako parroko baten eskabidea eta errekurtsioa zela medio, 1867/1998 Errege Dekretuak salbuespen hori baliogabetu zuen inkonstituzionaltzat hartuz (musulmanek beren meskitak immatrikulatzeko eskubidea badute, eta protestanteek haien otoitz-lekuak, zer dela-eta ez Eliza Katolikoak bere tenpluak?). Horrek eskubidea eman dio Elizari bere tenpluak ere nahi izanez gero immatrikulatzeko. Zenbait elizbarrutitan immatrikulatu dira, besteak beste gure Iruñeko elizbarruti honetan. Inskribatzeak ez du jabetza aldatzen, publiko egiten du eta

43. Horregatik ere gure herrietan XIX. eta XX. mendeetan gehiago ahalegindu dira kontzejuek, udalak eta partikularrak Elizari behar zuen laguntza ematen. Azken hamarkadetan batez ere eliztarrak dira beren parrokiak matentzen dituztenak salbuespenak salbuespen.

44. *Boletín Oficial Eclesiástico del Obispado de Pamplona*, **370** (1881-I-3), 3-134 (*Arreglo parroquial del Obispado*); **394** (1881-XII-15), 513-515 (*Cuentas de Fábrica*).

45. Ruano, 2007: 64-68. Gai honi buruz ikus daiteke baita ere: Ruano Espina, L. (2005): *Régimen jurídico registral de los bienes de las confesiones religiosas y su tratamiento jurisprudencial*, Aranzadi, Iruñea.

horrekin segurtasun juridikoa bilatzen da. Elizak bere ondasunak inskribatzean batzuetan (berriak direnean) obra berriaren titulua aurkezten du; bestetan, jabetza-titulua ere erakusten du existitzen den kasuetan. Eta azkenik, titulurik existitzen ez denean, 206. artikulua administrazio publikoen gisa apezpikuari ziurtagiria luza-tzeko baimena ematen dio. Edukitza baketsua normalean demostratzeko zailta-sunik ez da egoten.

Parrokia-elizak parrokiarenak dira (parrokiek beren nortasun juridikoa dute, baita zuzenbide zibilaren aldetik ere). Segurtasun juridiko handiagoa izateko inskripzioa elizbarrutiaren (diozesiaren) izenean egin da, baina argi utziz parrokiarenak direla⁴⁶.

Eliza kristauak kristauenak dira, kristau-herriarenak, azken finean.

Bibliografia

- Aldea Vaquero, Q. (1973): "Patrimonio eclesiástico", in Q. Aldea Vaquero *et al.* (zuz.), *Diccionario de Historia Eclesiástica de España*, III, Madril.
- Aleman, J. M. (2008): "Norenak dira elizak?", *Mailope* [Araitz eta Larraungo aldizkaria], 2008ko urtarrila, 7 or.
- Álvarez Gómez, J. (2001): *Historia de la Iglesia. I. Edad Antigua*, BAC, Madril.
- Castelar Rodríguez, F. *et al.* (ed.) (2007): *Sinodycon hispanum. VIII. Calahorra-La Calzada y Pamplona*, BAC, Madril.
- Donézar Díez de Ulzurrun, J. M. (1991): *Navarra y la desamortización de Mendizábal (1836-1851)*, Institución Príncipe de Viana, Iruñea.
- Echeverría Goñi, P. L. eta Fernández Gracia, R. (1987): *La Parroquia de San Juan en el conjunto urbano de Huarte Araquil*, Iruñea.
- Felones Morrás, R. (1982): "Contribución al estudio de la Iglesia del siglo XIII: el libro del Rediezmo de 1268 (I). Estudio y valoración", *Príncipe de Viana*, **43**, 139, 146.
- Fernández Gracia, R. (2004): "Documentación del Archivo Diocesano para el estudio de la historia del Arte navarro. A modo de ejemplo: la fachada de la catedral de Pamplona y los epígonos del Barroco en Navarra", *Príncipe de Viana*, **231**, 88-89.
- Floristán Imízcoz, A. (2004): "Fondos del Archivo Diocesano de Pamplona para el estudio de la Edad Moderna", *Príncipe de Viana*, **231**, 32.
- Hualde, F. (2007): "Archivos parroquiales: patrimonio de la Iglesia", *Diario de Noticias*, 2007-IX-17, 24-25.
- Martínez Díez, G. (1972): "Diezmo", in Q. Aldea Vaquero *et al.* (zuz.), *Diccionario de Historia Eclesiástica de España*, II, Madril.
- Mutiloa Poza, J. M. (1972): *La desamortización eclesiástica en Navarra*, Eunsa, Iruñea.
- Orlandis, J. (2003): *Historia de las instituciones de la Iglesia Católica*, Eunsa, Iruñea.
- Pérez Ollo, F. (2004): "Tesoros, encantos y destajo del Archivo Diocesano de Pamplona", *Príncipe de Viana*, **231**, 9.
- Regatillo, E. F. (1956): *Instituciones Iuris Canonici*, I. lib., Sal Terrae, Santander.
- Rodríguez Gil, M. (1999): "Consideraciones sobre una antigua polémica: las Iglesias propias", *Cuadernos de Historia del Derecho*, **6**, 247-272.
- Ruano Espina, L. (2007): "Titularidad e inscripción en el Registro de la Propiedad de los Bienes Inmuebles (Culturales) de la Iglesia", *Patrimonio Cultural*, **45**, 55-74.

46. Apaizetxe bat edo parrokiako lur-sailen bat saltzean diru hori parrokiarentzat izaten da. Bertako tenplua konpontzeko askotan egiten dira horrelakoak (Intza, Irañeta...).

